



**EBAZPENA, 2016ko abenduaren 20koa, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariarena, zeinaren bitartez bertan behera uzten baitira diru-laguntza batzuk; izan ere, erakunde batzuei eman zitzaizkien, Hezkuntza Sailarekin lankidetzan aritu nahi zutelako proiektuak egiten, Irakasleen Etengabeko Prestakuntzarako Plana garatzeko (Prest\_Gara 2016-17).**

2016ko martxoaren 2an emandako aginduaren bidez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak erakunde publiko nahiz pribatuei egin zien dei, proiektuak aurkeztuz Sailarekin lankidetzan aritu nahi bazuten-edo, Irakasleen Etengabeko Prestakuntzarako Plana garatze aldera. (EHAA, 2016-03-08).

Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendariak, 2016ko maiatzaren 5eko ebazpen batzuen bidez, diruz laguntzeko moduko proiektuak onartu zituen 1.1, 1.2, 2.1, 2.2 eta 3 multzoetan; onartu ere, erakunde publiko eta pribatuei, proiektuak aurkeztuz Sailarekin lankidetzan jardun zezaten Irakasleen Etengabeko Prestakuntzarako Plana garatzen (Prest\_Gara 2016-17).

Irakasleek prestakuntza-jardueretan parte hartzea eskatzeko epea amaituta, ikusirik deialdi-aginduaren 12.5 artikulua dioena, hots, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendariak bertan behera utziko dituela jarduera-proiektuak egiteko diru-laguntzak, baldin eta, irakasleak matrikulatzeko hasierako epea igarota, aurreikusitako postuen % 40 bete ez bada,

Honako hau

**EBAZTEN DUT**

Lehenengoa.- Bertan behera uztea I. Eranskinean jasotako erakundeei emandako diru-laguntzak, prestakuntza-jardueretan ez baita bete aurreikusitako postuen % 40.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka, ez baitu administrazio-bidea agortzen, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuordeari, ebazpena elektronikoki jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduaren 20a

Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaria  
**BEGOÑA GARAMENDI IBARRA**

**ERANSKINA I / ANEXO I**
**BLOQUE 1.1 Prest\_Gara 2016/17**  
**(60% en 2016 y 40% en 2017)**

<b>CIF</b>	<b>ENTIDAD</b>	<b>ANUL.</b>	<b>2016</b>	<b>2017</b>
B01341619	Komalingua SL	9.590,00	5.754,00	3.836,00
F20072609	Mondragon Lingua Sociedad Cooperativa	6.400,00	3.840,00	2.560,00

**BLOQUE 1.2 Prest\_Gara 2016/17**  
**(60% en 2016 y 40% en 2017)**

<b>CIF</b>	<b>ENTIDAD</b>	<b>ANUL.</b>	<b>2016</b>	<b>2017</b>
B01519677	Level Language Services, S.L.U.	10.030,00	6.018,00	4.012,00
F20072609	Mondragon Lingua Sociedad Cooperativa	2.400,00	1.440,00	960,00
B20499174	Welcome School Of English	6.159,00	3.695,40	2.463,60

**BLOQUE 2.2 Prest\_Gara 2016/17**  
**(60% en 2016 y 40% en 2017)**

<b>CIF</b>	<b>ENTIDAD</b>	<b>ANUL.</b>	<b>2016</b>	<b>2017</b>
G20059135	Aranzadi Zientzia Elkartea - Sociedad de Ciencias Aranzadi	2.547,00	1.528,20	1.018,8
G20903449	CIC nanoGUNE	4.500,00	2.700,00	1.800,00
G95698197	GUZTIOK	1.785,00	1.071,00	714,00
F75030569	Innova4B	2.970,00	1.782,00	1.188,00
B01117480	Instituto Europa SL	2.052,00	1.231,20	820,80
B01285790	Ipacé Psicología Aplicada SL	2.000,00	1.200,00	800,00
G75116525	Nazaret Zentroa	2.695,00	1.617,00	1.078,00
Q4818001B	UPV/EHU: Dpto Dibujo y Bellas Artes	1.870,00	1.122,00	748,00
Q4818001B	UPV/EHU: Dpto Expresión Musical y Plástica	2.647,00	1.588,20	1.058,80